



TERNUAKO IZOTZ ARTEAN

Ximon Salaberria naukazue, Gipuzkoako ekialdear izkinean kokaturik dagoen Lezo ize-neko herrixkan jaioa, baserritarra jaiotzez eta izatez, eta marinel eta bale-arrantzale diru beharrez. Diru beharrez bai, horregatik, horregatik bakarrik itsasoratu bait naiz bostpasei bat aldiz bale arrantzak ematen dituen txanponen atzetik abiatutik, eta Ternuako lur eremu zabal eta izoztu hauetara etorri.

Ezer gutxirako balio izan ziek, diru pixar bat egin, etxera itzuli, eta baserrian berehala gastatu, ehia dela edo azienda erosi beharra, edo zorrak, edo... Senide asko gaituk etxean, eta danok ezin bizi euskal lur maiteak ematen duenetatik. Honela konformatu beharko. Honela izan bait da beti, bai Lezon, eta bai bailarako herri guztietan. Etxean tokirik ez daukanak kanpora joan beharko, eta askoz gehiago oraindik, premu edo maiorazko ez diren ni bezalako mutilzaharrak.

Hogeitamazazpi urte dizkit dagoeneko, ez nak beraz, oso gaztea. Ezta zaharra ere. Nire aurpegiko larrua ximurturik izan arren, ez dut zahartzaroaren fruitu, izotz eta hotz haundien artean, urte luzeetan egindako lan nekesuaren arrastoa baizik. Danak dik bere prezioa, esan zin noizbait eta nonbait, bere izena oroitzen ez dudan pentsalari ospetsu batek, eta are gehiago oraindik, balearen atzetik Ternuara etortzeak.

Ez bait da erraza patrika bale arrantzak ematen duen diruarekin betetzea. Behin jaso ez-kero, segituan betetzen duk, baina jaso arte ehundako penak eta nekeak igaro behar. Dirua ateratzen duk, bai!, ez dizuet ukatuko, baina ederki kostata!, makina izerdi, odol eta malko ixuririk!

Nire kontuek ez badidate hutsik egiten, badira lau hilabete luze Lezoko portutik atera ginela. Lau hilabete luze eta gogor. Lezoko Gurutze Doneari eskatu nioken abiatu aurretik, eskatu eta erregetu, oraingo hau nire Ternuarako azken bidaia izatea. Nire pamilia ez zioken ondo, ez diruz eta ez ondasunez, baina pixkanaka pixkanaka, eta neronek Ternuatik ekarritako diruari eskerrak, zulotik ateratzen hasita zioken. Behin berriro bakarrik Ternua aldera, eta ordaindu ahal izango genin gure guraso zaharrengandik jasotako enprestitoa.




Abiatze lanetan ginenean, han ikusi ahal izan nizkin, kaian zutik, niri agurka, nire bost anai-arrebak, anaia zaharrenaren emazte eta bi seme-alaba ttikiak, eta amatxo zaharra. Haren malkoak! Agur amatxo! –esan nin nire barruz–, agian ni etortzerako ezin izango zaitut berriro bizirik ikusi, agur ama laztana!, –errepikatu nin nire barne alde malkoak ezin konturik–.

Han zioken ere Joxepi, aldameneko baserriko alaba. Urte luzeetan nire neska laguna izandakoa. Ez iun garai bateko neskaxa gazte, polit eta liraina, baina bere musuak oraindik isladatzen zin aurreneko urteetan izandako edertasuna. Bera ere nigarrez ari iun. Nigarrez eta ixilka, inori deus esan gabe. Gurutze Doneak nahi badin laster ikusiko iñau elkar, nire bihotzeko Joxepi, elkar ikusi eta ezkondu, Ternuatik ekarritako diruak hortarako ere ematen bait dit, –pentsatu nin orduan–.

Pentsamenduak, ametsak agian..., bortizki igarotzen zituk nire gogotik, Lezoko kaian agurka ari zirenen irudiak gero eta ttikiagoak egiten ziren bitartean. Bagindoazen, bagindoazen izotz, eta baleen lurralde eta itsaso urrunetarantz, hainbeste amets bete zezazkeen Ternua hotz hartarantz! Laster utzi genin urruti Pasai Donibaneko barra, eta ama-itsasoaren haunditasunean murgiltzen ginen neurrian, olatuek eragindako kulunka zialdotsuari jarraituz dantzatzen hasten ginen neurrian, hurbilagoak, errealagoak, betekorragoak egiten zitzaizkidaken nire barne gogoeta guztiak.

Amets eroak, errorik gabekoak,... egun itxaropentsu hartan egin nituenak. Zein errealtatetik urrun! Ordutik zenbat elur ekaitz jasan ditugun!, zenbat neke eta zenbat nigar! Badirudi balearrantzalearen patua behin eta berriro errepikatzen dela. Itsaso zabaletik, aiheka batetik bestera ibiliz, lehorrean inoiz finkatu gabe..., betetzen bait da anitzetan behin balearen atzetik joateko bidea hartu zutenen bizitza.

Eta neri gauza bera gertatu zaiek. Gaztaroan laja ni lehendabiziko aldiz lehorra, geroxeago erosago, burua altxata bizitzeko grinez..., eta gaur, hogeitamabi urte beranduago, hemen niok, itsasoan oraindik, edo hobeto esanda, lur izoztu honetan..., nire herria eta nire senideak berriz ikusteko esperantzarik gabe. Baina atso nigarrak bazterrean utzirik,



nire kapitainaren atzetik, izotz artean, egiten ari garen bide hau erratu gabe, konta diezaizuedan nire ixtorioa.

Lehen kontatzen hasi natzaizuen bezala, 1732.eko otsailaren bian atera giñun Lezoko portutik, Perutxo Isasti kapitain famatuaren agindupeko "Izarra" izeneko itsasontzian, eta hasiera batetan, pozik eta itxaropentsu bagindoazen ere, laster trukatu iun gure umorea gaitz misteriotsu batek eraso egiten zigula ikustean.


Tripulazioa ia erdira jeitsia iun, baina Isasti kapitainak ez zin atzera itzuli nahi eta aurrera segitzeko agindu zin irmoki. Ternuako lehenengo izotzak ikusi genituenerako, bizirik irauten genuenok ia ez giñun itsasontzia nabigazioan mantentzeko gai. Hauxe ikusirik, oraindik urruti zegoen lehenengo euskal porturaino eraman nahi gintuen kapitainak ertze hurbiletan lehorreratze-ko agindu zin. Bere asmoa ez iun han denbora luze gelditzekoa, indarrak hartuta, lehenengo portura abiatzekoa baizik. Baina gure patuak, hasiera hasieratik okerturik zioken, eta oso bestelakoa nahi zin.

Gau hartan lehorrean, horrela dei badakioke hemengo lur izoztuari, su bero baten inguruan afaldu genin. Gutxi giñun bizirik jarraitzen genuenok, gutxi eta gaitzak jota gainera. Baita Perutxo Isasti kapitaina ere. Sukarra haundik jota, beheko haundiagoak erasoturik, ez giñun gauza inolako lanetan hasteko. Gure itxaropenak hango euskal faktorieta-ko medikuengan jarrita ziozteken. Baina hortarako, haraino iritsi behar.

Gau hartan hotz ikaragarria egin zin, eta pattarra edanez konbatitu genioken, pattarra edanez eta kantatuz, gure Euskal Herriko kanta eta bertso zaharrak gure eztarri bero mortzortietatik hango giro hotz eta lurruntsuetara jaurtikiz. Hala eta guztiz ere, bost lagun gelditu zituk han, gaur hartan, seko, hotzak eta gaitzak erahilik, bizi izpirik gabe. Beren irudi hormatuek, bertako eskimal izeneko biztanleei hamaika aldiz aditutako elurretako mamu zurien oroitmena ekartzen ziguteken gogora. Ez zioken adur onik guretzako, gure ontziaren inguruko urak ere zeharo hormaturik bait zeuden. Makina aldiz ur izoztuetatik ateratzen saiatu arren, ezinezkotzat jo behar izan genin azkenez, eta gure esperantzetako barkua, han, mundu izoztu hartan utzirik, eta barruan generamatzkien lerez baliaturik, laino eta elurraren artean marrazturik ez zegoen bide ezezagun bati jarraituz, abiatu behar izan genin.

Kapitainak bazuen iparrorratz bat, Jaungoikoaren borondatez oraindik hormatu gabe zegoena, eta bere orratzak adierazitakoari jarraikiz, aurrerantz segitzen genin, aurrerantz beti aurrerantz, hurbilago zegoen lehenengo faktoriara iritsi nahiean.

Egia esan, berehala ulertu genin zein latza zen gure egoera, latza, goibela eta itxaropenik gabea era berean. Baina bizinahiak ematen duen indarraz baliaturik, aurrera jotzen genin, aurrera, beti aurrera! Hamabost giñun oraindik, giza kate hartan arrastaka, eroriz eta altxatuz batzuetan, eroriz eta altxatu gabe beste askotan, aurrera, gure kapitainak markatutako bideari jarraitzen genionak. Baina pixkanaka pixkanaka gutxitzen joan giñun. Han Joanot Ameztoi, hor Joxe Garmendia, hemen nire ondoan eta orain dela gutxi erori duk betirako Julian Aranburu. Elurak ezabatzen dizkik gure urratsak, baita eroritako lagunen gorpuak ere. Hala ere, Isasti kapitainak ez dik etsitzen, ondotxo bait daki gure esperantza bakarri iparrorratzak agindutako norabideari jarraitzea dela, beti iparmendebalderantz, iparmendebalderantz beti!



Gaur, badira hamabi egun itsontzia ziri izoztuen artean utzi behar izan genuela, eta lau hilabete exkas Lezotik aterea ginela. Jakin izan banu orduan! Nire pentsamenduak, nire ametsak, nire oroimenak,... nahastu eta korapilatu egiten zaizkiek gogoan, ene bizitza osoa une bakar batez berriz bizi izan nahiko banu bezala, nire senide eta lagun guztiak, bide erratu hartan nire ondoan baleude bezala.

Baina ez, ez zioztek nirekin. Nirekin bakar bakarrik Perutxo Isasti kapitaina, eta atzetik pausu batzu urrunago arrastaka, indarrik gabe, datorren beste laguna bait daude. Antton Etxeberria ote?, edo agian Josetxo Iriarte? Ez Josetxo atzo erori iun hormaturik, bere hankak ezin gehiago mugiturik, bere arnasa ezin pizturik..., beraz ez duk Josetxo nire atzetik, neke haundiz, dabilena. Joxepi, ez kezkatu!, laister egongo bait naiz hirekin, laister egongo bait gara biok gure etxeko su bazterrean! Gure elkarrekiko bizitzak beste bide berria hartuko din! Zin daginak Joxepi!

Nire atzean ez dizkit atzetik heldu den lagunaren pausuak aditzen!, ez bere arnas neket-sua sumatzen! Ez dator...!, eroriko iun besteak bezala, edo agian erratu bidean, lainoek itsuturik! Bi gaituk bakarrik dagoeneko, kapitaina eta biok..., baina kapitaina non zaude?, non sartu zara? Nik nak erratu den bakarra!, madarikatua mila aldiz nire zortea!, madarikatua Lezotik atera nintzen eguna! Zorigaiztokoak nire pausuak!, zorigaiztokoak nire bizitza osoa!

Ez dizkit kapitainaren urrats arrastoak aurkitzen, alperrik elurak berehala estaltzen bait du dana bere mantala zuriz. Dagoeneko, nire belarriak gorturik zioztek haizearen uhulaz, eta nire begiak itsuturik elur maluten etengabeko erortzeaz. Nire arnasa aspeturik suma-tzen dit, baita ene bihotza mindurik ere, ezinaren minak jota. Agur ama eta anai-arreba maiteak, ez zaituztet gehiago ikusiko! Agur nire Joxepi laztana!, hietzat ditun nire azken oroimenak! Agur Lezo kuttuna!, agur... nire Euskal Herri goxoa!, agur!

–Urruntasunean, lainoa eta elurrarekin nahasturik, zenbait txabolen irudiak ikus daitezke, eta beraien artean argi ilun horixka batek beren bazterrak argitarazten ditu. Txabolen sakontasunetik eta haizearen uhularekin bat eginik, zenbait euskarazko hitz iragartzen dira–.



Etxeak, euskaldunak...!, salbo niok!, itzuliko nan berriro hire ondora Joxepi! Berriro hirekin paseatuko nan Jaizkibeleko bideetatik!

– Baina bere gorputzak ez dio bere nahiari segitzen, bere hankak ez dute pausurik ematen, bere belak tolesten dira, gorputza lurreraino makurtuz. Ximon lurrean, elur artean, etzanda dago. Bere eskuak euskal balearrantzaleen etxeetarantz seinalatzen du..., baina bere gorputzak ez dio erantzuten. Ezin du zutik jarri, ezta be-

launiko ere..., eta elurak bere gorputza eroria estaltzen duen bitartean, bere eztarritik azken hitza ateratzen zaio xumeki, erdi hormaturik, Ternuako aire ilun, lainotsu hartara... Joxepi!!!

Karlox Barrentsoro